

DBH 4_ EKONOMIA _ PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Maialen Muguerza Amigorena	Maila	DBH4	Ikasturtea	2021-22
-----------	----------------------------	-------	------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Hautazko irakasgaia. 3 ordu astean.

Ekonomian, ikaskuntza eta prestakuntza arrunt beharrezkoak gertatzen dira, testuinguru oso globalizatua baita, eta hartan harreman ekonomikoak gero eta konplexuagoak. Ekonomia gure eguneroko biziaren alderdi guztietan ageri da; herritar guztiek ezagutu behar dituzte gertaera ekonomikoak azaltzen dituzten oinarriko arauak eta ekonomialariek eta hedabideek gertaera horiek aztertzeke erabiltzen duten mintzaira berariazkoa. Ez da posible errealitatea zuzen ulertzea kontuan hartu gabe pertsonen, banaka nahiz taldeka, beren beharrak nola ase bilatzean duten portaera ekonomikoa, ezta ulertu gabe ere horretarako behar diren ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta antolaketa, eta baliabide urrien banaketa.

Ekonomia ikasteak laguntzen du inguratzen gaituen mundua ezagutzen eta bide ematen du giza harremanak aztertu eta sakontzeko ikuspuntu mikro eta makroekonomikoetatik, testuinguruko aldagaiak barne; orobat, errazten du ekonomian eta enpresaren munduan erabiltzen diren kontzeptuak ulertzea, arrazoibideak, abstrakzioak eta loturak egiteko trebetasunak eta gaitasunak sustatzen ditu, eta tresnak ematen ditu gure gizartea kritikoki aztertzeke. Gainera, lagungarria da ondokoa garatzeko: jakin-min intelektuala, gaitasun analitikoa, gai desberdinak aztertu eta ikertzeke ikuspegi zabalak eta zorroztasuna, hazkundera, pobrezia, hezkuntza, osasuna, aberastasuna, ingurumena eta beste aldagai batzuen ezagutza, ezagutza matematikoa eta estatistikoa, eta ahozko eta idatzizko komunikazioaren gaitasuna, ideiak eta ondorioak azaldu eta adierazteke arrazoiak eta frogak enpirikoak erabiliz, etikaren eta gizakiarekiko errespetuaren zentzu sendoa, eta lan egiteke gaitasun handia, banaka zein taldeka.

Beharbada, jakintzagai gisa, ekonomiaren beste zientzia sozialekiko bereizgarri nagusia ez da haren objektua, ikuspegia baizik. Inoiz bada-eta, ezagutza ekonomikoek gaur egun hartzen dute balio handiagoa, herritar fidagarriak eta jantziak izateak eta herri baten baliabideak zuzen administratzeak duen garrantziagatik; horrexek jartzen du agerian ekonomiak gizartean duen munta, haren ezagutzari esker sustatzen ahal baita bizi kalitatearen hobekuntza, aurrerapena eta gizarte ongizatea.

Ekonomiaren ikaskuntzak, prestakuntza teknikoaz ez ezik, zenbait gaitasunez hornitzen du ikaslea talde lanari dagokionez, eta horiez gain, komunikatzeko trebetasuna, ekimena eta lidergoaz, baita izaera ekintzailearen akuilua ere.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteke lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK	UNITATEAK											
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
1) Hizkuntza komunikazioa.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.		x	x		x	x	x	x	x	x		
3) Gaitasun digitala.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
4) Ikasten ikastea	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
6) Ekimena eta ekintzaitza.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

DBH CURRICULUMA

Ikasgaiak ondorengo eskema jarraitzen du: lehendabizi, ekonomiako oinarrizko kontzeptuak azalduko dira; ondoren, analisi mikroekonomikoa egingen da; honi analisi makroekonomikoa jarraituko dio; azkenik, nazioarteko merkataritza eta globalizazioa aztertuko dira.

1. Atala: Ekonomiako oinarrizko ideiak → 1, 2, eta 3 unitate didaktikoak

2. Atala: Ekonomia eta enpresa → 2, 3 eta 4 unitate didaktikoak

3. Atala: Norberaren ekonomia → 5, 6 eta 7 unitateak. sistema fiskala: PFEZa. Nominak aztertzen

4. Atala: Ekonomia eta Estatuaren diru-sarrerak eta gastuak → 10 unitate didaktikoa eta sistema fiskala: PFEZa

5. Atala: Ekonomia eta interes tasak, inflazioa eta langabezia → 8 eta 9 unitateak

6. Atala: Nazioarteko ekonomia → 11 eta 12 unitate didaktikoak

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

DBH CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
8	1. unitatea: ekonomia zientzia baliagarria	8	5. unitatea: Finantzen plangintza	6	sistema fiskala: PFEZ. Nominak aztertzen
8	2. unitatea: Ekoizpena eta hazkundea	8	6. unitatea: Finantzen osasuna	6	8. unitatea: Ekoizpena eta prezioak

8	3.unitatea: Merkatuak eta enpresa	8	7.unitatea: Dirua eta hura erabiltzeko moduak	6	9.unitatea: Lan-merkatua
8	4.unitatea: Enpresa eta haren ingurunea	10	10.unitatea: Estatuaren kontuak	5	11.unitatea: Nazioarteko merkataritza eta Europar Batasuna
				6	12.unitatea: Globalizazioa eta munduko ekonomiaren desorekak

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gai bakoitzaren **aurkezpena eta sarrera irakasleak** azalduko du. Unitate bakoitzeko ikasleek errepasorako ariketak entregatuko dituzte, eta, kurtsoan zehar, talde-lan bat egonen da, kontzeptuak barneratzeko eta ikasgaia eguneroko bizitzarekin erlazionatzeko. Metodologiari dagokionez, ikasturtean zehar IK/KI programan (ikasteko kooperatu/ kooperatzen ikasi) txertatutako jarduera, estrategia, talde-dinamika, egitura eta teknikak laduko dira.

Ikasgai honako material hau erabiliko da:

- McGraw Hill-en EKONOMIA liburua
- Koadernoak
- Ikasgaiko classrooma
- Bideoak, egunkariak, aldizkariak, Internet, ...

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Honako esteka honetan ikusgai: [DBH CURRICULUMA](#)

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Ebaluazio bakoitzeko nota honako batz-besteko haztatuaren bitartez kalkulatu da:

- Ebaluazioan zehar egindako azterketak eta lanak → %80
- Jarrera, produkzioak eta euskara → % 20 Jarrera ikasleei emanen zaien errubrikaren bidez baloratuko da. Ikasgaia gainditzeko, derrigorrezkoa izanen da atal honetan behintzat %10a eskuratzea.

Atal bakoitza ebaluatzeko, errubrika objektiboak erabiliko dira.

Azterketaren batean edo lan batean 3 baino gutxiago ateratzen bada, derrigorrez berreskuratu beharko da. 3 eta 5en arteko nota ateratzen bada, ebaluazioa gainditzeko batez bestekoa 5 edo gehiago izan behar da. Gertatu ezean, zatia berreskuratu beharko da.

Gainditzeko, ebaluazioan zehar agindutako lan guztiak egin beharko dira eta epean entregatu. Bi egun (gehienez) berandu entregatzekotan, bi puntuko penalizazioa izanen du. Ez dira beranduago entregatutako lanak onartuko. Entregatu ezean, edo lana ez gainditzekotan, zati hau berreskuratu beharko da.

Kalifikazio tresnak ondorengo hauek izanen dira:

- Azterketak (ebaluazio bakoitzeko bi)
- Egindako lanak, bai taldeka, bai banakakoak
- Ikasle bakoitzak egiten duen **eguneroko lan eta jarreraren balorazioa** irakasleak egiten duen **etengabeko behaketa**

Azken nota hiru ebaluaziotan lortutakoaren batez bestekoa izanen da, baldin eta guztietan 5 baino gehiago atera den.

Kurtsoa amaitzean, nota borobiltzeko azterketa bat egiteko aukera egonen da.

Kopiatzeak, bai azterketetan bai lanetan, suspenditzea suposatzen du.

Sakeleko telefonoak institutuan debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero, puntu bat jaitsiko dio ikasleari ebaluazioan. Gelako jarrera negatiboak beherako eragina izango du notan.

Oharra: departamentuko erabakia ikasgai eta maila guztietarako: ikasgai bateko ebaluazioa gainditzeko gutxienez 5 behar da, nota hori baino gutxiago atera duten guztiek dagokien atala suspendituta izango dute eta beraz, berreskuratutako beharko dute.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Ebaluazio bakoitzean bi edo hiru froga egingen dira. Froga bakoitzean gehienez hiru gai sartuko dira.

Froga guztiek zati teoriko eta zati praktikoa izanen dute. Bakoitzaren balioa aldatuko da frogaren arabera. Hala ere gehienetan zati teorikoak praktikoa baino balio handiagoa izanen du, eta inoiz ez txikiagoa.

Ebaluazio bakoitzean, ikasleek lan desberdinak egin beharko dituzte, bai banaka bai taldeka.

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Kurtsoa amaitzean, nota borobiltzeko azterketa bat egiteko aukera egonen da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio bat gainditzen ez denean, irakasleak prestaturiko berreskurapenerako plangintza proposatuko zaio ikasleari. Honetan sar daitezke errefortzu lanak, edota berreskurapenerako azterketa, finkatu gabe dauden edukiak berreskuratuzko. Berreskurapenaren bitartez gainditutako ikasleari, gehienez ere, 5 jarriko zaio.

Maiatzeko berreskurapena: ikasle bakoitzak ebaluazioen zehar gainditu ez dituen zatien azken berreskurapena egiteko aukera izanen du, irakasleak egokien ikusten duen moduan.

Ekaineko berreskurapen ez-ohiko deialdia: irakasleak egokien ikusten duen moduan egingen da, gainditu ez diren edukien arabera.

Horren balioa %100 da eta gehienezko nota 5 izanen da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Kurtso honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik.

OHARRA: Aurreko guztia malgutasunez jarraituko den hasierako plangintza bat da. Kurtsoan zehar aldaketak egiteko beharra ikusten bada, egingo dira